



# Osasuna Politika Guztietan

**BATZORDE TEKNIKOA**



Txosten  
sektoriala **2019**

**Etxebizitza**

2021eko martxoa



*Euskadi, auzolana*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

2018-2020 Etxebizitza Plan Zuzentzailearen bidez, pertsonen bizi-baldintzak hobetu nahi dira, haien etxebizitzak eta eraikinak hobetuz. Horretarako, birgaitze-laguntzei eutsi zaie, hiru programa hauekin:

### 1. Partikularrei eta jabe erkidegoei zuzenduriko laguntzen programak eraikinak eta etxebizitzak zaharberritzeko.

**Helburua.** Partikularren eta bizilagunen komunitateak birgaitzeko lanak babestea, bizigarritasuna hobetzeko, desgaitasuna duten pertsonen sarbidea ahalbidetzeko eta energia-kontsumoa murrizteko.

### 2. Irisgarritasunaren arloko laguntzen programa udalentsat eta toki-erakunde txikientzat.

**Helburua.** Hiri-inguruneak eta espazio publikoek pertsona guztiei berdin eta ahalik eta modu independenteenean moldatzeko aukera ematea, pertsonen beharrak Europako Irisgarritasun Kontzeptuan ezarritako diseinu unibertsalari erantzuten dioten instalazio irisgarrietan integratuta.

### 3. Etxebizitzaren eta eraikinen birgaitze eraginkorrerako laguntza-programa, ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko.

**Helburua.** Eraikin multzokatueta irisgarritasun-baldintzak, suteen aurkako segurtasunekoak eta energia-eraginkortasunekoak hobetzea, gutxienez eraikinen alde bat hartzen duten eta erabilera nagusia etxebizitza duten blokeak edo etxadiak osatuta.

Hona hemen 2019an aipatutako programetarako lortutako datuak:

PARTIKULARREI ETA JABE ERKIDEGOEI ZUZENDURIKO LAGUNTZEN PROGRAMAK ERAIKINAK ETA ETXEBIZITZAK ZAHARBERRITZEKO. 2019	ETXEBIZITZA KOP.	LOKAL KOP.	KOMUNITATE KOP.	DIRU-LAGUNTZA (€)
Irisgarritasuna	2.549	90	744	4.947.327
Ingurat zailea	1.690	120	154	4.626.606
Egitura	6.666	284	1.990	9.845.675

HIRI BIRSORKUNTZA	ETXEBIZITZA KOP.	2019	2020	2021	2022
Renove 2019 Birgaitzea-Eraginkortasun energetikoa	541	550.000	1.950.000	2.400.000	1.500.000
Irisgarritasuna 2019	141 (jarduketak)	297.522	2.837.901	2.815.018	

Era berean, Etxebizitzaren Legean aitortutako etxebizitzarako eskubide subjektiboa garatzen jarraitzen dugu. Eskubide hori etxebizitza duin eta egokirik eduki ez eta etxebizitza bat lortzeko behar diren baliabide ekonomikoak ez dituztenen aldekoa da.

Era berean, babes publikoko etxebizitza-parkea eta zuzkidura-bizitokiak behar horri erantzuteko ez direla nahikoa jabetuta, Etxebizitzaren Legeak aukera subsidiarioa ezartzen du eskubide hori prestazio ekonomiko publiko baten bidez betetzeko, onuradunek merkatu babestutik kanpoko errentamendu bat eskuratu ahal izan dezaten.

ETXEBIZITZARAKO ESKUBIDE SUBJEKTIBOA (DATU METATUAK HASIERATIK)	LLHH			ABEN-DUA 2019
	ARABA	BIZKAIA	GIPUZK.	
EES eskaera kopurua	1.547	5.082	1.049	7.678
Egiteke dauden eskaeren kopurua	91	37	17	145
Atzera egindako eskaeren kopurua	20	3	44	67
Ezetsitako eskaeren kopurua	291	737	319	1.347
Onartutako EES eskaera kopurua	1.050	3.135	548	4.733
Adjudikazio lehentasuna	549	2.167	218	2.934
Etxebizitza adjudikazioa	394	333	223	950
EPE	74	507	98	679
EPE iraungita	33	128	9	170
EES iraungita duten eskaera kopurua	91	1.149	111	1.351

---

Eta gazteen emantzipazioari laguntzeko lanean, 2019rako datu hauekin:

ESLEIPENAK 2019		GUZTIRA
ASAP	Gazteak	124
	Guztira	345
2019an bisatutako kontratuak	Gazteak	2.286
	Guztira	6.472
Bizigune	Gazteak	685
	Guztira	3.351
ADAK	Gazteak	466
	Guztira	466
<b>Guztira</b>	<b>Gazteak</b>	<b>3.561</b>
	<b>Guztira</b>	<b>10.634</b>